

Alberto Zerain



Alberto Zerain Berasategi, Gasteizen jaio zen 1961eko abuztuaren 20an.

Hogeita bat urterekin hartu zuen parte bere lehenengo espedizioan, Peruko lurretan. Mendien erakargarritasunak ez ezik, bidaiak berak ere liluratu zuen eta hurrengo zortzi urteetan bete-

betean murgildu zen dinamika horretan. Mendiaren aitzakiarekin, bere bidaietarako grina asetzen joango zen eta, noski, abentura erarik librenean bizi ahal izateko, betiko oztopoak aparte utzi behar izan zituen.

1993an Everestarako espedizio batean parte hartu zuen eta hortik aurrera bizpahiru urtetan behin Himalayara joaten izan da. Bost zortzimilako eskalatu ditu: Everest, Makalu, Lhotse, Gasherbrum I eta Gasherbrum II.



ARGAZKIAK: ZERAIN KOLEKIOA

GRADUAK GORA ETA GRADUAK BEHERA

MENDI-kontuen aitorleku berezi honetan, eskaladako graduaz hitz egin nahi dut. Nik apaltasunez onartu beharra daukat gaur egun graduei egiten dieran ekarpena oso urria dela. Izan ere, nik oraindik ez dut 7. gradua ezagutzen. Agian, batek daki, egunen batean oharkabean egingo nuen, kinka larriren batetik irteteko; ohartu ere ez naiz egin, ordea. Baina jakina da meritu handirik ez dudala egin hori lortzeko. Eta 6 C graduaz ezin dut askoz ere gehiago esan: egunen batzuetan bigarren sokakide modura egitea tokatu zait, eta orduan hortzez ere baliatu naiz grabitateari izkin egiteko. Baina behin baino gehiagotan tokatu zait Pirinioetan, Europako Mendietan eta Alpeetan igotzen hasi eta berehala eskaladaren ardura hartu behar izatea, nahiz eta nire sokakidearekin aurrez hitzartuta eduki nire mailaren araberako tarte luzeren batean baino ez nuela eskalatu lehenengo sokakide modura. Zeinen polita den hormaren bati heletzea, tarte gaiztoez zure sokakidea arduratuko dela jakinda! Zeinen ongi egiten zen lo eskaladaren aurreko gauean, norbere aingeru zaindariaren ondoan!

Naranjoaren sartaldeko horma eskalatzera joan nintzen batean ederra gertatu zitzaidan. Bizpahiru hilabete ziren eskalatzeko hasi nintzela. Nire sokakideak, ordea, maila handia zeukan bereganatuta etxetik hurbileko eskalada-eskoletan. Hirugarren tarte luzeari ekiteko pronto geundela, nire sokakidea hasi ez zitzaidan, ba, materiala pasatzen! Halako batean, bera ondo sentitu ez eta eskaladaren ardura gutzia nire bizkar gainean utzi zuen. Ordura arte nik ez nuen sekula halako graduko horma zailik eskalatu; amildegiaren arnasa bizi-bizi nabaritzen nuen neure atzean. Bilgunera leher eginda iritsi nintzen. Gero sokakidea iritsi zen, zurbil-zurbil eta hitz egiteko gai ez zela. Hori ikusita, Tiros de la Torcaino jarraitu nuen sokaburuan. Beste edonor nire lekuan egonda, direnak eta ez direnak esango zizkion sokakideari, eskaladako lehenengo postua uzteko "eskuzabaltasuna"

izateagatik. Baina nik esan beharra daukat, orduko esperientzia hark bereziki zaildu ninduela eskalatzaile eta mendizale modura, eta oso garrantzitsua izan zela niretzat.

Nik ez dut zalantzarik 7. graduaren muga desiratu horren azpian badela bizitzarik eta erronkarik mendian. Alpeetatik Andeetara edo Himalaiara salto eginez gero, oso zaila da norberak dituen graduei eustea. Eskalatu nahi den horma leku babesgabe, gaizto eta garairen batean badago, gradua ez den beste osagai bat erantsi behar zaio mendiari. Hor bai geratzen da agerian eskalatzailearen benetako jantzia edo gradua! Denok gutxi gorabehera badakigu nola egin

behar zaion aurre hormari, zakurik gabeko bibaka egin ondoren edo eguraldia aldrebesten denean. Hor beste graduazio bat sartzen da jokoan, eskalatzaileok barnean dugun graduazioa, motibazioarekin lotura zuzena duena. Eskalatzailea behar bezain lasaia eta ausarta bada eta kinka larrietan trebatuta baldin badago, zailtasunak murrizten joango dira. Kasurik okerreanean, ahotsa dugu lagun, eta hor ere graduazioak badu bere garrantzia, zenbat eta ozenago oihu egin, orduan eta arinago emango baitizute laguntza, eta ez dadila mendia zure entzule bakarra izan, Jainkoarren!

Behin mendiak jarri dizun proba gogor horretatik onik eta salbu ateraz gero, onena

duzu jatetxe, lodge edo txabola batera joan eta sekula ametsetan ere zeureganatu ezin zenezakeen gradu bat gainditzea, lagunak ondoan dituzula, balentriaren lekuko. Horretarako, 13 graduko ardo botila bat, Errioxakoa noski, izango duzu laguntzaile aparta. Ez da txantxa, gero, 13 gradutara irenstea!

Azken batean, dugun gradua dugula ere (edo batere gradurik ez dugula), mendiak bere liluramendutik ihes egiten uzten digu, beste erronka baterako gonbita eginez: saltsa batetik atera berri, eta ohartzeko beste batean gaude sartuta. Horixe da, funtsean, gure senitartekoen amesgaiztoa, eta gure patua ere bai. ☺

Nik ez dut zalantzarik 7. graduaren muga desiratu horren azpian badela bizitzarik eta erronkarik mendian. Alpeetatik Andeetara edo Himalaiara salto eginez gero, oso zaila da norberak dituen graduei eustea.